

GIL 113 Kanpezuko mueletako aldapa-erliebea



Muela (eskuinean) eta Peña del Santo edo Arregi (ezkerrean) Durruma Kanpezutik. Bi erliebe horiek osatzen duten okerdura txikiko sinklinala ikusten da.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 40' 15,66" N

Long.: 2° 6' 38,64" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 545.554,37 m

Y: 4.724.432,46 m



Nola iritsi

Gasteiztik, hartu Santikurutze Kanpezurako bidea (A-132), eta, Antoñana parean, ezkerre egin A-3136 errepidea hartzeko. Durruma Kanpezuraino jarraitu behar da.

GILaren deskribapen laburra

Aldapan dauden erliebe estrukturalen adibide garbiak dira Muela eta Peña del Santo edo Arregi mendiak. Ikuspegi geologikotik, goiko pakete gogorra Paleozenoko kareharriz osatua dago, zeinak Goi Kretazeoko tuparrien gainean baitaude. Bi unitateen higadura diferentziala denez, horren ondorio dira gaur egungo itxura eta erliebe maldatsua. Egiturak sinklinal oso ireki bat osatzen du, ardatza pixka bat N-rantz okertua duena, eta bi paketeek okerdura leunak dituzte NW eta NE-rantz. Bi alpeak banatu eta bi erliebe independente sortzen dituen iparralderantzko faila batek eragiten dio tolesaren ardatzari.

Egitura horrek jarraitu egiten du iparralderantz, Soila gainarekin. Han, material hareatsuagoak daude, Eozenokoak.

Behatzeko punturik onena

Durruma Kanpezutik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 150, GIL 110, GIL 30.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 6, GIL 46, GIL 47, GIL 114.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografía espezifikoa

- Fernández Carrasco, J., Cerezo Arasti, A., Zapata Sola, M. eta Martínez Vallvey. 1991. *EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAPA GEOLOGIKOA 1:25.000 ESKALAN, 111-IV ORRIA (Kuartango)*. ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE), Bilbo.
- Fernández Carrasco, J., Cerezo Arasti, A. eta Zapata Sola, M. 1991. *EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAPA GEOLOGIKOA, E 1:25.000, 137-II ORRIA (Erriberagoitia)*. ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE), Bilbo.
- Fernández de Ortega Larruzea, I. 2008. *Hidrogeología de las Sierras de Badaia y Arkamo (U. H. Calizas de Subijana)*. Doktore-tesien bilduma, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Floquet, M. 2004. "El Cretácico superior de la Cuenca Vasco-Cantábrica y áreas adyacentes". In: J. A. Vera (ed.), *Geología de España*, SGE-IGME, Madrid, 299-306.